

HUHEZI barneko futbol 7 torneoa jokatu da

2014/01/30

Urtarrilak 30 goizean jokatu da Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian Huhezi barneko neguko futbol 7 torneoa. Guztira 6 taldek hartu dute parte: hezkuntzako bost taldek eta Ikus-Entzunezko batek. Guztira 70 ikasle inguru aritu dira futbolean eta eguraldi traketsa egin badu ere, ederki aritu dira lagun artean jokatzen.

Txapelketari dagokionean, hezkuntza 1.mailako "Benja 2.0" taldea izan da irabazle. Finalean 4-2 emaitzarekin gailendu zaio iazko garaile izan zen "Ostias Pako!" taldeari. Irabazleek otsailaren 11an, Arrasaten jokatuko den MUko txapelketan parte hartzeko aukera eskuratu dute. Hemen emaitza guztiak ikusgai.

Torneo amaieran partaide guztiek lunch-a izan dute, ikaskideekin mintzatu eta partiduko gorabeherak kontatzeko aukera aparta, bai orixe!

Mila esker partaide guztioi eta hurrengoarte!

